



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

ALDUNDIAK “%1EKO” EZ BETETZEAK BAINO EZ EBAZAN HAUTEMAN 2019AN, GIZARTE ARLOKO PRESTAZINOAK AZTERTU EBAZANEAN

- Sergio Murillo Gizarte Ekintzako Foru Diputatuak 2019ko Ikuskapenerako eta Kontrolerako planaren eta Covid-19a dala eta martxan jarri diran plan “berezi” bien balantzea egin dau.
- Igaz, Aldundiak 54.575 ikuskapen egin ebazan.
- Gizarte Ekintzako Batzordean, Aldundiaren esku dagozan gizarte arloko zerbitzuen egoeraren barri be emon dau.

(*Bilbon, 2020ko maiatzaren 29an*). Bizkaiko Foru Aldundiak, 2019ko Gizarte Zerbitzuen eta Prestazinoen Ikuskapenerako eta Kontrolerako Plan Orokorren eta Covid-19a dala eta aktibau diran ikuskapenerako plan “berezi” bien balantzea egin dau gaur Bizkaiko Batzar Nagusietan. Sergio Murillo Gizarte Ekintzako Foru Diputatuak, pandemia dala eta eten diran gizarte zerbitzuen jarduerari barriro ekiteko ildo nagusiak be aurreratu ditu.

Berak eskatuta egin dauen lehenengo agerraldian, Aldundiak emon ebazan eta 119 eurora heldu ziran gizarte arloko prestazinoei jagokenez 2019an izandako betetze maila altua azpimarratu dau diputatuak. Aldundiaren ikuskapenak hautemandako irregulartasunak “ia” ez ziran “%1era” heldu, eta, hori dala eta, laguntzen onuradunek “1,4 milioi euro” itzuli behar izan ebezan, adierazo dau. Aldundiak prestazinoen %100 aztertu ebazan, hau da, onartutako “47.162” laguntzak, hau da, “aurreikusitakoak baino 13.000 gehiago”.

Horrez gain, Gizarte Ekintza Saileko kontroleko zerbitzuek ikuskapeneko beste lau “bloketan” be egin dabe behar. Gizarte arloko prestazinoak aztertzeaz gain, Aldundiak lurraldeko gizarte zerbitzuetako zentroak, 2019an martxan jarritako programak, etxean egiten diran zainketak eta hirugarren sektoreko erakundeak adostutako hitzarmenak eta horreei emondako diru-laguntzak aztertu ditu. Jarraipenaren esfortzua “ikuskapeneko 54.575 ekintzatan” zentrau da. Guztira “prestazinoetara eta diru-laguntzetara zuzendutako 140 milioi euro baino gehiago ikuskatu dira, 47.162 prestazino aztertu dira, etxeke 4.683 eta zentroetako 2.308 jarraipen egin dira eta 422 zentro aztertu dira”. “Inoiz baino gehiago”, jarduketa horreek argi eta garbi erakutsi dabe gizarte zerbitzuen finantzaketea “ondo bideratuta dagola eta heldu behar dan lekura ailegetan dala”, laburbildu dau Murillok.

Homologautako zentro guztietan arautegia beteten dala bermatu gura izan dau Aldundiak, hau da, gizarte arloko 389 zentroetan. Igaz, Aldundiak, 29 zentrotan



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

izandako “48 gertakizun” hauteman ebazan. Irregularitasunak egon ziran adinekoentzako 4 egoitzatan, 12 etxebizitza komunitarioran eta tutelautako apartamentu bitan, eta 9 gertakizun izan ziran adinbakoen zentroetan.

Personek aurreikusitako arretea jasoten dabela egiaztetako programetan egin diran kontrolerako ekintzez gain, Murillok argitu dauenez 2019an, “2.308 persona” egoera onean dagozala zaindu dau Aldundiak. Horreetatik erdia baino gehiago adinekoak (630) eta umeak (1.078) izan dira.

Horrez gain, proponidu zan moduan, igaz Aldundiak aurrera jarraitu eban etxean zaintzeko laguntzak jasoten dituen 18.577 personen %25aren ikuskapenagaz. “4.683 onuradun” ikuskatu ziran. Arlo horretan, Aldundiak “126 intzidentzia” edegi ebazan; horreetatik “73tan” zaintzaileen “gainkargak” hauteman ziran, eta “13tan” “amore emoteko arriskua” ikusi zan. “Ez zan tratatu txarren kasu bakar bat be” hauteman.

Eta, bukatzeko, bosgarren blokearen helburua, beste erakunde batzuek azostutako hitzarmenetan eta horreei emondako diru-laguntzetan irregularitasunak hautematea izan da. “22,2 milioi euro” aztertu dira. Diru-laguntza nominatiboen %100aren justifikazioa aztertu da, lehiaketa bitartez edo modu sinplean emondakoak, 15,9 milioi euro guztira. Azkenean, 31.013 euro itzuli behar izan dira, zenbateko osoaren %0,2a.

IKUSKAPENAK COVID-19AREN GARAIAN

Beste alde batetik, diputatuak osasun krisi honetan martxan jarri diran “plan berezi bien” laburpena be egin dau. Horreetako bat, egoitzen, egoiliarren eta senideen arteko komunikaziorako Aldundiaren politikea egiaztetara egon da bideratuta. Eta bestea, osasun arloko neurriak beteten diran ala ez testatzera.

Horri jagokonez, Aldundiak banakako mila kontaktu baino gehiago egin ditu pandemian: “294” lehenengo fasean, apirilaren 23ra arte; beste “65” bigarren fasean; eta beste “170” maiatzaren 5etik 22ra.

Ganera, Aldundiak Covid-19an positiboak izan dituen egoitzen kontrolerako plan berezia ezarri dau, faltau daitekezan baliabide materialak hautemateko eta bertako egoiliarren guneetan banatzeko egoitzei laguntza emoteko. Martiaren 30etik apirilaren 7ra, Aldundiko beharginek 14 ikuskapen egin ditue. Horreen ostean, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko beharginak be horretan aritu ziran, eta beste 85 bisita egin ebezan maiatzaren 15era arte.

Oposizinoaren eretziz “ausarta” izan dan keinuan, “egoitza txikietan” zonakatzea modu egokian egitea “gatxa” izan dala eta, pandemiaren lehenengo



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

asteetan, batez be, zentroi babeserako ekipo egokiak emotea ez dala “erreza” izan onartu dau Murillok. Autortu dauenez, “kasu batzuetan ez egozan homologauta”, edo “behin baino gehiagotan” erabili ziran.

ALDUNDIAREN ZERBITZUAK EDEGITEA

Saioko beste puntu batean, Aldundiko zerbitzuetan arintze prozesua zelan ari dan egiten azaldu dau Sergio Murillok. Holan, adinbakoen zentroi jagokenez, “dagozan 56 zentroetatik 55 martxan dagoz, eta falta dana astelehenean hasiko da”, esan dau. Datu horreei mendekotasuna baloretako 17 ekipoak aktibo dagozala, eta daborduko 1.079 balorazino egin dirala batu behar jake. “Datorren astelehenean” beste 5 ekipo aktibauko dira, aurreikusita dagon asteko 400 balorazinoko erritmora ailegetako. Mendekotasunari jagokenez, urritasunari egunez arretea emoteko 28 zentro martxan dagoz daborduko, eta erabiltzaileak apurka-apurka ari dira horreetara joaten.

Ganera, aste honen hasieran, adinekoentzako eguneko 4 zentro euren jardureagaz hasi dira. “Astelehenean, bagilaren 1ean, beste 11 edegiko dira, eta bagilaren 8an beste 3 edegiko dirala baieztatu da”. Adinekoen egoitzetara bisitak egiteari jagokenez, aste honetan horretarako aukerea emongo da, “kasu guztietan, bizi amaierako zainketak diranean, edo hori eskatzen daben egoera kognitiboetan edo psiko-emozionaletan”.

EH BILDUREN PROPOSAMENAK

Diputatuaren agerraldiaren ostean, Gizarte Ekintzako batzordeak EH Bildu taldeak aurkeztu dituan arauz besteko proposamen bi eztabaidatu ditu, Eguneko Zentroetan hartutako neurrien eta adinekoen egoitzetan “isolamendua amaitzearen” ganean. Proposamena aurkeztu dauen taldeak lehenengoa baztertu egin dau, “akordio bat lortzeko” helburuagaz, Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek ez dabe bigarrena onartu. Elkarrekin Bizkaia alde agertu da eta Talde Berezia (PP) abstenidu egin da. “Daborduko arintze prozesuan beharrean ari dan gizarte eta osasun arloko batzorde tekniko dago, eta foru aginduak aste honetan bertan argitaratuko dira”, iragarri dau Jane Eyre Urquieta jeltzaleak. EH Bilduko Izaskun Duquek, batzorde horrek, oposizinoko taldeen “gizarte eta osasun arloko proposamen batzuk, eta ez proposamen politikoak”, jasotea eskatu dau.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

LA DIPUTACIÓN “APENAS” DETECTÓ “UN 1%” DE INCUMPLIMIENTOS EN 2019 EN LA REVISIÓN DE LAS PRESTACIONES SOCIALES

- El diputado foral de Acción Social, Sergio Murillo, hace balance del plan de Inspección y Control de 2019 y de los dos planes “especiales” de revisión puestos en marcha por el Covid-19.
- La Diputación realizó el año pasado 54.575 actuaciones inspectoras.
- Da cuenta también, en la Comisión de Acción Social, del estado de apertura de los distintos servicios sociales dependientes de la Diputación.

(Bilbao, a 29 de mayo de 2020). La Diputación foral de Bizkaia ha hecho hoy en las Juntas Generales de Bizkaia, balance del Plan General de Inspección y Control de Servicios y Prestaciones Sociales del año 2019, y de los dos planes “especiales” de inspección activados como consecuencia del Covid-19. El diputado foral de Acción Social, Sergio Murillo, ha avanzado también, en la comisión correspondiente, las líneas generales para retomar la actividad de los servicios sociales suspendidos a consecuencia de la pandemia.

En su primera comparecencia, solicitada a petición propia, el diputado ha destacado el amplio cumplimiento que se produjo en el año 2019 respecto a las prestaciones sociales otorgadas por la Diputación, que sumaron una inversión de 119 millones de euros. La Inspección foral “apenas” detectó un “1%” de irregularidades, lo que obligó a los beneficiarios de estas ayudas a devolver “1,4 millones de euros”, ha apuntado. La Diputación llegó a revisar el 100% de las prestaciones, o sea, las “47.162” ayudas aprobadas, lo que supuso “13.000 más de las previstas”.

Asimismo, los servicios de control del departamento foral de Acción Social han trabajado en otros cuatro “bloques” de inspección. Además de la revisión de las prestaciones sociales, la Diputación ha revisado centros de servicios sociales del territorio, programas puestos en marcha en 2019, los cuidados en el hogar, y los convenios y subvenciones otorgados a entidades del tercer sector. El esfuerzo de seguimiento se concentra en “54.575 actuaciones inspectoras” y “más de 140 millones en prestaciones y subvenciones inspeccionados, 47.162 prestaciones revisadas, 4.683 seguimientos en el hogar, 2.308 en centros y 422 centros inspeccionados”. “Más que nunca” estas actuaciones han demostrado que la financiación de los servicios sociales “está bien destinada y llega a quien tiene que llegar”, ha resumido Murillo.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

La Diputación ha querido garantizar que se cumpla la normativa en la totalidad de los centros homologados, es decir, en los 389 centros sociales. El año pasado, la Diputación detectó “48 incidencias”, distribuidas en 29 centros. Hubo irregularidades en 4 residencias de mayores, 12 viviendas comunitarias y 2 apartamentos tutelados, además de 9 incidencias en centros de menores.

Respecto al control de los diferentes programas para verificar que las personas recibieran la atención prevista, Murillo ha desvelado que la Diputación ha vigilado el estado óptimo de “2.308 personas” en 2019. Más de la mitad se han concentrado en mayores (630) y en la infancia (1.078).

Asimismo, como se propuso, la Diputación mantuvo el año pasado la inspección en el 25% de los 18.577 perceptores con ayudas por cuidados en el hogar. Se llegaron a inspeccionar a “4.683 personas beneficiarias”. Aquí, la Diputación abrió “126 incidencias”; en “73” se detectaron “sobrecarga” de las personas cuidadoras y en “13” se llegó a descubrir “riesgo de claudicación”. “En ningún caso” hubo malos tratos.

Y, por último, un quinto bloque trataba de detectar irregularidades en los convenios y subvenciones firmados con otras entidades. Se ha llevado a cabo la revisión de un importe total de “22,2 millones de euros”. Se ha desmenuzado la justificación del 100% de las subvenciones nominativas, de concurrencia competitiva o simple, por importe de 15,9 millones de euros. Los reintegros han sido de 31.013 euros, un 0,2% del total.

INSPECCIONES EN PLENO COVID-19

Por otro lado, el diputado ha hecho también un resumen de los “dos planes especiales” puestos en marcha en esta crisis sanitaria, una destinada a verificar la política de comunicación entre la Diputación, los centros, los residentes y los familiares. Y, la otra, para testar el cumplimiento de las medidas sanitarias.

En este sentido, la Diputación ha realizado más de medio millar de contactos individuales en esta pandemia: “294” en una primera fase, hasta el 23 de abril; otros “65” en una segunda fase; y otros “170” , entre el 5 y el 22 de mayo.

Además, la Diputación ha establecido un plan especial de control de las residencias con positivos de Covid-19, con el objetivo de detectar carencias en los recursos materiales y de servir de apoyo a los centros para realizar la zonificación de los residentes. Del 30 de marzo al 7 de abril, personal de la Diputación ha realizado 14 inspecciones. Tras estas, se incorporó personal del



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

de la consejería de Salud del Gobierno vasco para realizar otras 85 visitas hasta el 15 de mayo.

En un gesto “valiente” según la oposición, Murillo ha admitido la “complejidad” que ha supuesto hacer correctamente esta zonificación “en los centros residenciales de menor tamaño”, así como “dificultades”, sobre todo durante las primeras semanas de la pandemia, para dotar los centros con equipos de protección adecuados, asumiendo incluso que “en algunos casos no estaban homologados” o se llegaron a “reutilizar”.

APERTURA DE LOS SERVICIOS FORALES

En otro punto de la sesión, Sergio Murillo ha ido explicando cómo se está haciendo la desescalada de los distintos servicios forales. Así, en relación a los centros de menores, “55 de los 56 centros están en marcha, y el que falta comenzará el lunes”. A estos, se le une que 17 equipos de valoración de la dependencia están activos, y se han realizado ya 1.079 valoraciones. “El lunes próximo” se activan otros 5 equipos, para alcanzar el ritmo estimado de 400 valoraciones semanales. En cuanto a la dependencia, 28 centros de atención diurna de discapacidad están ya en marcha, con una incorporación paulatina de personas usuarias.

Asimismo, a comienzos de esta semana, recobraron su actividad 4 centros de día para personas mayores. “El lunes, 1 de junio, se abrirán otros 11, y el día 8 han confirmado apertura otros 3”. En cuanto a las visitas a centros de mayores, esta semana se posibilitan las mismas “en todos los casos, cuando se trate de cuidados al final de la vida, situaciones cognitivas o psico-emocionales que así lo requieran”.

PROPOSICIONES DE EH BILDU

Tras la comparecencia del diputado, la comisión de Acción Social ha debatido dos proposiciones no de norma de EH Bildu respecto a la adopción de medidas en los Centros de Día y al “desaislamiento” de las residencias para mayores. La primera ha sido retirada por el grupo proponente con el propósito de “llegar a un acuerdo”, y la segunda ha sido desestimada por Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos, mientras que Elkarrekin Bizkaia la ha apoyado y el Grupo Mixto (PP) se ha abstenido. “Existe una comisión técnica socio-sanitaria que está trabajando ya en la desescalada y las órdenes forales se harán públicas esta misma semana”, ha anunciado la jeltzale Jane Eyre Urquieta. Izaskun Duque, de EH Bildu, ha pedido que esta comisión “recoja algunas propuestas de carácter socio-sanitario, no político”, de los grupos de la oposición.